

# Berrigara


BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko Urriaren 24a / 558. zenbakia



**ENERGIA BERRIZTAGARRIA IPINTZAN**  
Eguzki bidezko energia garbia sortzen dihardute

**ELKARRIZKETA: TXAN MAGOA/12 • ERRETIRATUAK: KULTUR HAMABOSTALDIA BIHAR BUKATUKO DA/14**

# GIDA 04 abian!



Telefono berria jarri baduzu  
edo aldatu baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira  
edo bidali ondorengo helbidera:  
[publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com).

Gida Komertziala,  
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

**943 71 23 91**

# ATREBENTZIAEZPADA/ Energia kontsumua zaintzen dozu? Ze egitten dozu zaintzeko?



**BEGOÑA CAAMANHO**  
38 urte



**CLARA CABO**  
37 urte



**NAIARA POLVOROSA**  
25 urte



**JESUS MARTIN**  
37 urte



**LIDE SEBAL**  
22 urte



**JOSEBA URZELAI**  
35 urte

Saiatzen naiz. Adibidez, biharrezkuak ez dien argiak piztuta ez edukitzen saiitzen naiz eta baita herogailua piztuta baldin badaukat lehiok ixten. Halako gauzak.

Ni saiitzen naiz, baina senarra eta semia ez gehixegi. Argixak piztuta lagatzen dabe, iturririx zabalik... Ez die konturatzen. Nik uste dot honetan emakumiak fiñaguak garela.

Nik baiño gehixago gurasuek begiratzen dotse halako gauzei. Begiratu ezian faturetan be igarri egitten da. Nik kasu gehixago egitten dotsat gauzak birziklatziaz.

Nik bai, zaintzen dot, baiña seme-alabek ez. Lau dauzkat gaiñera. Hamalau urtekua komunian egoten da, ez dakit zetan, denboria galtzen. Eta bestiak bideuakin, telebisiñuakin...

Bai, saiatu behintzat egitten naiz kontuan hartzen. Dana dala, gure etxian aittak zaintzen dittu asko halako gauzak danak, eta nik aittak esandako danak egitten dittut.

Ez, zaindu ez. Komeni danian argixa pizten dogu eta listo. Dana dala, biharriz ez dagonian gauzak alperrik martxan be ez dittugu edukitzen, ez bada despiste bategaittik.

## TXALOKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZULOAK ETA EDUKIONTZIAK** Koldo Eleizaldetik deitu dute haserre. Auzoa zuloz josita dago, eta honezkerok, bat baino gehiago erori eta anbulantziak joan behar izan duela azaldu dute. Bestalde, beira, papera eta plastiko edukiontzia kendu dizkietela ere esan dute, edukiontzia usteko kamioiak ezin duelako pasatu. Bi arazoei konponbidea emateko eskatzen dute auzokideek. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5	KIROLAK / 10	KULTURA / 12
<b>Ordenantza fiskalak</b> Eguenean onartu zituen Udaltzaren 2004an %3,5 gehiago ordainduko dugu Udalerri zerbiztuengatik.	<b>Behobia Txiki lasterketa</b> Zapatuan Behobia Txiki herri lasterketa jokatu da. Ehun bat korrikalarik hartuko dute parte.	<b>Txan magoa pilotalekuan</b> Txan mago ezagunak umeendako emanaldia egingo du etzi, domeka, 18:00etan Udalerri pilotalekuan.

## ASTEKO DATUA

8

### GRADUKO TEMPERATURA MARTITZENEAN

Bat batean etorri da hotza. Termometroek nabarmen egin dute behera azken egunotan. Luis Mari Agirrerren datuen arabera 8°C-ko temperatura izan genuen martitzenean, asteko hotzena.

## BESTE EKESANA

**Zahor bonboi-poltsak 130 eta 250 gramo arteko poltsak dira, nahiko prezio onean daude, eta oso ondo saltzen dira. Azken batean, bonboiaren kontzeptu berri bat da; bonboiak, normalean, ospakizunen bat dagoenean jateko izaten dira, edo opariren bat egiteko, baina bonboi poltsaren kontzeptua desberdina da, hau da, niretako erosten dudako bonboia da, gustatzen zaidalako, merezi dudalako, kapritxo bat daukadalako... Oso ondo funtzionatzen ari da, eta, horregatik, ahalegin handia egiten ari gara supermerkatu, denda eta ohiko saltokietan gain, zine-areto, tren geltoki eta gasolindegietan egoteko, oso produktu egokia delako bultzada erako salmenta kanaletarako.**  
**ELI UGALDE / Zahor-eko Marketing arduraduna Kontzejupetik/03ko urria**

## BERAIEK DIÑOE / Jose Angel Mikeo



### Boliviako gasa eta Angiozar

**B**oliviako egoera pobre eta pobretua aintzakoztat hartu eta hango ezagunekin gogoratu naiz. Ezagutzen ditudan boliviarrak indigenak dira, eta agian, nire ikuspegia ez da objektiboa izango, baina hango indigenen indijentzia egoera sortu, bultzatu eta mendeetan mantentzea nazkagarria iruditzea subjektiboa izanik ere, gizatasunezkoa iruditzen zait. Gasa da euren egoeratik, denak batera, denena den heldu leku bakarra eta horri eutsi diote: edo aurrerapeña denontzat da edo hemen ez dago gobernu ezta desgobernu. Eta aurreko puntu eta aparte idazteaz bat irratian entzun dut, berriz ere, euskal kultura bultzatzeko, indartzeko, lanean ari diren zenbait lagun atxilotu dituztela. Eta gure Euskal Herri honen indijentziaz ohartu naiz, eta gure egoera Boliviako indigenen egoeratik hain urrun ez dagoela: ez dago euskararentzat aurrerabiderik, dena da terro-

rismoa eta kalera irteten dena ere kartzelarako bidean dabil...  
Eta hortik Angiozarrera egin du salto buruak. Zein dira gure herriaren egoeran ezinean ibiltzera bultzatzen gaituzten gertaerak? Hainbat bururatu zaizkit. Ezin duzue imajinatu herri txikietan, auzoetan, baserrietan bizi garenontzat egiten diharduten autopista eta abarrek zer nolako atzerapena dakarten komunitate lez. Guk ere komunitate bezala, mendeetako historiarekin, irauteko eskubidea dugu, eta gure barruko kohesiorako bide eta komunikazioak derrigorrezkoak dira.  
Duela zortzi urte Angiozartik Udalerri hiru pista egiteko eskatu genion autopista egitean irteten zuen herriarekin. Apurrak eskatzen genituen gure izatearen iraupenerako. Eta hor ikusten dugu nola autopistak bailara itxi duen, tunela egin diguten eta gure izatean tunel horren bukaera ikusi ezinean dabilen... Ea Bolivian bezala gasa geldituko ote zaigun azken borrokarako!

**“Angiozarren ere, komunitate bezala, mendeetako historiarekin, irauteko eskubidea dugu”**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 24**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 25**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- DOMEKA, 26**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 27**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 28**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 29**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUENA, 30**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 76 53 40
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kirologia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notarioa ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li><b>San Pedro</b></li> <li>Domekak: 09:30, 12:30.</li> <li>Zapatuak eta lanegunak: 19:00.</li> <li><b>Sierbak</b></li> <li>Lanegunak: 19:15.</li> <li>Zapatuak: 19:00.</li> <li>Domekak: 11:30, 13:00.</li> <li><b>Osintxu</b></li> <li>Domekak: 12:30.</li> <li>Zapatuak: 19:00.</li> <li><b>Elosu</b></li> <li>Domekak: 10:30.</li> <li><b>Ubera</b></li> <li>Domekak: 10:30.</li> <li><b>San Juan</b></li> <li>Domekak: 11:00.</li> <li><b>Elorregi</b></li> <li>Domekak: 10:30.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Labegariaeta</b></li> <li>Domekak: 11:00.</li> <li><b>San Lorentzo</b></li> <li>Zapatuak: 20:00.</li> <li><b>Angiozar</b></li> <li>Domekak: 11:30.</li> <li><b>Moja Zaharrak</b></li> <li>Lanegunak: 09:00.</li> <li>Zapatuak: 11:00.</li> <li><b>Mizpirualde</b></li> <li>Lanegunak: 11:45.</li> <li>Zapatuak: 17:30.</li> <li><b>Antzuola</b></li> <li>Domekak: 09:00, 11:30.</li> <li>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.</li> <li><b>Uzarraga</b></li> <li>Domekak: 10:00.</li> <li><b>Elgeta</b></li> <li>Lanegunak: 09:00.</li> <li>Zapatuak: 19:30.</li> <li>Domekak: 12:00.</li> </ul> |
|--|---|

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
- Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
- Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1962an jaiotako afaria urriaren 25ean Erreki jatetxean. Izenematea Errekin (aurrez 10 euro). Bihar, afari egunean, 20:00etan elkartuko dira frontoian.

**1946AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1946an jaiotako afaria azaroaren 22an Tartufo jatetxean. Izenematea 943 76 35 51 telefonon.

**1981EAN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1981ean jaiotako afaria azaroaren 22an. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontu zenbakian (3035 0009 1300 9006 9776) azaroaren 15era arte.

**1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1934an jaiotako bazkaria azaroaren 29an Torrekua jatetxean, 14:45ean. Izenematea Torrekua jatetxean (aurrez 12 euro).

**1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1933an jaiotako bazkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

**ODOL ATERATZEA**  
Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea azaroaren 12an izango da, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

**JARDUNEN AGENDA**

**TXAPLIGU ETA TXISKRILABI**  
Txapligu taldekoek (9-11 urte) zapatuan eta domekan ekitaldiak izango dituzte Arri-zuriagan, 16:00etatik 20:00etara. Domekan San Martziale-ra irteera egingo dute. Eta Txiskrilabi taldekoak (12-14 urte) Udal Euskaltegian egongo dira zapatu arratsaldean; eskulanak eta bestelako ekitaldiak egingo dituzte.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegariaeta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegariaeta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegariaeta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN**

**Lasa jatetxea Ozaeta jauregian zabaltzeko lanak hasi**

Hainbat urtean Bidekurutzetako 34. zenbakian egon ondoren, Lasa jatetxea Ozaeta jauregira pasatzeko lanak hasi zituzten 1993ko azaroan. Construcciones Ugarte enpresak egin zituen Ozaeta jauregiko (1549koa) berritze lanak. Eta Lasa jatetxea 1994an zabaldu zuten Ozaetan.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Ekubilkaria”*



Ukabilkada. Ikubilkara.  
—*Ekubilkaria emon zotan tripapian.*

GORKA ORTEGA

**ASTEKO FILMAK**

**‘HULK’**  
ZUZENDARIA: ANG LEE. AKTOREAK: ERIC BANA, JENNIFER CONNELLY, SAM ELLIOT.

**HARIA.** Komikietako super-heroian oinarritutako filma egin zuen Ang Lee zuzendari ospetsuak (*Tormenta de hielo*). Kritikak ez zion harrera beroagiririk eskaini Hulk sutsuaren abenturari. Efektu bereziak dira filmeko gauza aipagarriena.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

**‘EL MISTERIO GALINDEZ’**  
ZUZENDARIA: GERARDO HERRERO. AKTOREAK: SAFFRON BURROWS, HARVEY KEITEL.

**HARIA.** Manuel Vazquez Montalban zenaren eleberrian oinarritutako filma. Errealitatea eta fikzioa nahastuz, Galindez euskal politikariaren hilketaren inguruan zelako ezkutuko interesak zeuden argitzen saiatzen da filma.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan 22:30ean eta domekan 19:30ean eta 22:15ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 21	<b>8°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguaztena, 15	<b>25°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>6,4 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	25°C	14°C	1,7 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 16	20°C	13°C	— l/m <sup>2</sup>
Egubakoitz, 17	20°C	9°C	— l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 18	24°C	11°C	1,4 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 19	21°C	14°C	0,9 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 20	17°C	9°C	4,1 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 21	17°C	8°C	0,3 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak.

# OGIZUN

koop. elk.

## okindegia

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13

# Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**HEZKUNTZA**/Ikasleengan energia berriztagarrien gaineko kontzientzia piztea eta haiek ezagutzera ematea du helburu, besteak beste

# Eguzki bidezko energia garbia sortzeko instalazioa egin dute Ipintza institutuan

MONIKA BELASTEGI


EEEK eta Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak egindako hitzarmen batetik sortutako proiektua da. Iaz ekin zioten sistema ezartzeari eta dagoeneko bukatuta eta abian dago. Ikasleei energia berriztagarriak ezagutzera ematea eta kontzientzia piztea du helburu.

Energia berriztagarriak, eta batik bat, eguzki energia ezagutzera emateko eta ikasleak horren gainean hezteko eta sentsibilizatzeko helburua du proiektuak. Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) egindako proiektua da, eta asmoa da 2008rako eguzkiaren baliatuz energia garbia ekoizteko instalazioak ezartzea 170 ikastetxetan.

Proiektua iaz jarri zuten abian 30 ikastetxetan, tartean Ipintza institutuan, eta dagoeneko instalazioa guztiz bukatuta eta abian dago.

## INSTALAZIOAK HIRU ATAL DITU

Instalazioak hiru atal ditu, Juan Mari Sasigain Ipintzako irakasle eta proiektuaren arduradunak azaldu duenez: alde batetik, plaka fotovoltaikoak jarri dituzte institutuaren teilatuan. 48 plaka dira guztira, eta 5.000 W-ko potentzia du instalazioak; bestetik, panel informatiboa jarri dute ikastetxearen sarreran. Panel



Panel informatiboa eguzki energiaren momentuko aprobetxamendua eta ekoiztutako energia kopurua daude, besteak beste.

horretan instalazio fotovoltaikoaren datu orokorrak ikustez gainera, Ipintzako instalazioaren datu zehatzak ikusteko aukera izango dute; unean unekoak eta une oro, gainera: eguzki energiaren momentuko aprobetxamendua, instalazioa jarri zen egunetik ekoiztutako energia elek-

*Dagoeneko 3.700 kWh-ko sortu dute eta 3.510 kilo CO<sub>2</sub> ekidin dute Ipintza institutuan*

triko kopuru osoa, baita airea igitzea ekidin den CO<sub>2</sub> (anhidrido karbonikoa) kopuru osoa ere.

Proiektuaren hirugarren atala aplikazio informatikoa da: ikasleek instalazioaren datu teknikoak aztertu ahal izango dituzte ordenagailuan; hau da, zenbat

energia ekoizten diharduen instalazioak, potentzia, eta horrelako informazioa izango dute han.

Aplikazio informatikoari dagokionez, batik bat Teknologia ikasgaian jorratzen dutela azaldu du Juan Mari Sasigainek. Ikasleek ordenagailuz jarrai dezakete instalazio fotovoltaikoaren bilakaera. Gainera, eguneko, aste osoko, hilabeteko eta urteko datuak ikusteko aukera eskaintzen du.

Energia berriztagarriaren gaia Teknologia ikasgaian lantzen dute ikasleek, hain justu, eta Ipintzako ikasleek, orain arte teoria mailan jaso izan dutena bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute aurrerantzean.

## ENERGIA KOPURUA EGUZKIAREN MENDE DAGO

Instalazioaren bigarren eta hirugarren atala jarri berri dituzten arren, plaka fotovoltaikoak iazko azaroaren 1a ezker daude abian. Orduz gero 3.700 kWh-ko inguru ekoiztu ditu Ipintza institutuak, eta 3.512 kilo CO<sub>2</sub> inguru ekidin. Sasigainek azaldu duenez, ekoizten den energia kopurua eguzkiaren mende dago: zenbat eta eguzki gehiago, orduan eta energia kopuru handiagoa. Eurek orain arte ekoiztutakoa Iberdrolari saltzen diote, eta energia mota horiek laguntza jasotzen dutenez, kW-ko 0,40 euro ematen dizkie Iberdrolak Ipintza institutukoiei.

# Isuna jarri dio Udalak Txosna batzordeari, baimena ukatu ostean San Martin jaietan txosna jartzeagatik

MONIKA BELASTEGI

Batzordeak zentzugabe deritzo Udalaren jarrerari, batik bat, txosna jartzeko formalki baimenak eskatu eta beti ezezeko erantzuna jaso zutelako. Zigorriari alegazioak egin dizkiote aste honetan.

Uztailaren 15ean egin zuen lehenengo eskaera Udalean Txosna batzordeak. Irailaren 12tik 16ra bitartean Munibe plazan txosna jartzeko baimena eskatu zuten, eta han ezinezkoa balitz, beste toki bat aztertzeko aukera ere zehaztu zuten eskarian. Uztailaren 29an Udalaren erantzuna jaso zutela jakinarazi dute batzordeko kideek: "Munibe plazan txosna ezin genuela jarri erantzun zigun Udalak, irailaren 16an nekazaritzarekin lotutako ekitaldiak egongo zirelako eta ez litzatekeelako txosnaren tokirik egongo".

Andorior, beste proposamen bat egin zuen batzordeak: San Martin plazan harakinendako jarri zuten txosna aprobetxatzeko aukera izatea. "Baina horri ere ezetz esan ziguten", esan dute batzordekoek. Ezezkoen aurrean, Udal ordezkariekin hitz egin nahi izan zutela gehitu dute, baina "horri ere uko egin zioten". Hala, "Udalaren erantzuna ikusita eta ezezkoak arrazoitzeke ganorazko argudiorik ematen ez zutela ikusita, Muniben txosna jartzea erabaki genuen". Gainera, batzordeari ez zitzaion justua iruditu Udalaren ezezkoa: "Herriko kultura mugimendua bultzatzen duen zortzi taldek osatzen dugu batzordea, eta dagoen kultura mugimendu eskasa kontuan hartuta ez zaigu justua iruditzen ezezkoa jasotzea; txosna da gure diru iturri nagusia".

Baimen barik txosna jartzeagatik zigor espedientea ireki dio-

te batzordeari, eta 1.200 euro inguruko isuna. Batzordeari zentzugabea iruditu zaio, eta aste honetan alegazioak aurkeztu dituzte Udalean: espedientea ixteko eskatzen dute eta baita halakorik berriz ez gertatzeko eta jai eremuak bergarar guztiondako balio bera izateko neurriak hartzeko ere.

## UDALAREN BERTSIOA

Udaleko ordezkariak diote, baimenik ez zutela eman ez zegoelako tokirik txosna jartzeko, eta, gainera, ez direla data egokienak txosna bat jartzeko. Azoka egunean San Martin plaza zein Munibe postuz beteta egoten direla azaldu dute. Bestetik, feria bezperan batzordekoek Muniben txosna jarri zuten, feriako antolatzaileek han jarri behar zituzten postuak Seminariora eramatea erabaki zutela gaineratu dute Udal iturriek, hala, iskanbila gehiagorik ez eragiteko.



Txosna batzordea herriko zortzi taldek osatzen dute.

ARTXIBOA

HIRIGINTZA/ Masterrekako 10. eta 12. zenbakien eraiste lanak dira kalea ixteko arrazoia

# Masterreka kalea zabalik dago ibilgailuendako atzotik

MONIKA BELASTEGI

Astean barrena guztiz itxita egon da Masterreka kalea. 10 eta 12. zenbakiak dituzten eraikinak botatzeko lanak dira arrazoia. Eraiste lanetarako errepidearen zatia hartu behar izan dute eta horregatik itxi dute kalea ibilgailuendako. Atzo ezkerre zabalik dago.

Duela bi aste ekin zieten Masterreka kaleko 10. eta 12. zenbakiak eraisteko lanei. Hasiera batean, ibilgailuendako errepidea itxiko zutela esan zuten arren, Udal iturriek adierazi dutenez, ez da beharrik egon eta bidea pixka bat estutu badute ere, zabalik eduki dituzte bi noranzkoak, hau da, gorakoa eta beherakoa.

Hala eta guztiz ere, aste honetan itxita egon da kalea, nahiz eta bizpahiru eguneko kontua besterik ez den izan. Atzo ezkerre zabalik dago eta oraingoz berriz ixteko beharrik ez dela egongo adierazi dute Udaletik.

## DIRULAGUNTZA ESKAERA

Kartzela Zaharreko birgaitzea, Matxiategi kaleko irisgarritasuna



Masterreka kaleko 10 eta 12 zenbakiak eraiste lanak direla-eta itxi dute kalea.

na bermatzeko eta Artekale kalean urbanizazio berria egiteko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietako sailari dirulaguntza eskaera egitea erabaki du udalbatzak azkeneko osoko bilkuran, alderdi guztien oniritziarekin.

Horrekin lotuta, Matxiategi kalean irisgarritasunarekin lotutako lanak egiteko datorren urteko aurrekontuan 24.935 euroko partida sartzeko konpromisoa hartu du Udalak. Baita Artekaleko urbanizazio berrirako 373.827ko partida sartzekoa ere.

# Udalean pairatzen duen egoera "ez demokratikoa" salatu du BAK

MONIKA BELASTEGI

Udalean jasaten diharduen egoera ez demokratikoa eta bigarrena salatu du Bergara Aurrerak prentsurrekoan. Egoerari buelta emateko alderdiei egindako proposamenaren berri ere eman zuten, eta konponbiderako giltza borondate politikoa dela esan zuten.

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan bigarren indarra izan zirela gogoratuz ekin zioten Bergara Aurrerako ordezkariak prentsurrekoari, eta honakoa gehitu zuten: "Ia sei hilabete pasatu diren arren, Udalean ez dira gure eskubideak bermatu; ez gaituzte zinegotzi bezala onartu". Udalean apartheid politikoa ezarri dutela azaldu zuten: "Espainiako Estatuari men egin diote eta putxerazoa kudeatzen dihardute".

Egoera horri buelta emateko aukera badagoela azaldu zuten: "Udala demokratizatzeke aukera badago. Horretarako proposamen bat egin genien alderdiei, eta prest gaude edozein proposamen aztertzeke eta eztabaidatzeko, betiere oinarritzeko premisa gure eskubideak bermatzea izanik". Horren ildotik, konponbidea zaila ez dela gehitu zuten: "Boron-



Mila Elortza, Jesus Mari Garitano eta Maite Guridi martitzeneko prentsurrekoan.

date politikoa besterik ez da behar".

Era berean, euren proposamena azaldu zuten: "Proposamenarekin egoera konpondu eta Udalarri zilegitasun demokratikoa bueltatzen zaio. Proposamena hauxe da: Aralarren kasuan, hirugarren zinegotzitik beherakoek dimititzea eta EAJ-EAren kasuan, zortzigarrenetik aurrerakoek. Eta, horrela, hutsik geratuko liritekeen hiru zinegotzi karguak Bergara Aurrerako

zinegotziekin osatzea, korporazioak dituen 17 zinegotzien kopurua osatzeko. Hori eginez gero, hiru zinegotzietako batek Aralarreko Udal taldearena izaten jarraituko luke eta beste bi EAJ-EArenak. Hori ekiditeko, talde mistora pasatuko liriteke BAKo hiru ordezkariak".

Proposamenak EAJ-EAren aldetik erantzunik jaso ez duela azaldu zuten. Aralarren kasuan, "gehiegi eskatzen diegula esan dute, eta ez dute onartu".

# Udalean izandako jardunaren balorazioa egin du Aralarrek

MONIKA BELASTEGI

Egubakoitzean prentsurrekoan egin zuen Aralarrek. Batetik, Ainhoa Larrañagaren kargu uztearen arrazoia azaldu zituzten. Bestetik, hauteskundeetatik hona Udalean izandako jardunaren balorazioa egin zuten.

Ainhoa Larrañagari dagokionez, lan kontuak izan dira zinegotzi kargua lagatzeko arrazoia; izan ere, lan berria du eta hori zinegotzi karguarekin uztartzeko zailtasunak dituela azaldu zuten prentsurrekoan. Haren ordeze, Iñigo Iñurrategi hartuko du kargua, eta azaldu zuten, Iñurrategi egun erdirako liberatzea erabaki dute, "Aralarrek Udalean lan egokia egiteko asmoz". Zinegotzi karguaz gain, honako ardurak ere hartuko ditu Iñurrategi: Euskara eta Hezkuntza batzordeko buru eta Udal Euskaltegiko eta Mankomunitateko ordezkari.

## ORAIN ARTEKO LANAREN BALORAZIOA

Bost hilabeteotako balorazioaren gainean Aralarrek esan zuen hasieratik garbi izan zutela funtzionamendu aldetik arrotza zen erakunde batean ikastetik ekin behar ziotela. Eta zera esan dute: "Poliki baino azkar dihardugu eskarmentua hartzen".

Bestalde, euren helburua botoa eman zieten herritarren

ordezkaritza duin eta eraginkorra egitea izan dela esan zuten, eta aurrerantzean ere horrela izango dela. Hori horrela, alkarrekin hala eskainita, Gobernu batzordean parte hartzea erabaki zutela gehitu zuten. Bestetik, Gobernu batzordeko kideekin gaitasun iritzi kontrajarriak izan arren, harremanak onak direla gehitu zuten, eta euren jarrerak elkarlanerakoa dela, "betiere politika ildo propioa jorratuz".

Aurrera begirako lan ildoaren kasuan, epe laburrean indarrak honako alorretara bideratuko dituzte: gizarte ongizatea, etxebizitza, lurralde ordenamendua eta ingurumenaren babesa.

## BERGARA AURRERAZ

Bergara Aurrerak Udalean ordezkariarik ez izatea berriz gaitzetsi zuten prentsurrekoan; baita euren esku dagoena egiteko konpromisoa ere: alde batetik, bide judizialen bidez Europak esku har dezan; eta bestetik, Udal esparruan: "Gure helburua da Udal funtzionamenduan eta erabakietan parte hartzea eta parte hartze hori kudeatzeko baliabideak izatea". Horren harira, Bergara Aurrerako zinegotzietatik Udaleko erabakietan parte hartzeko helburuarekin proposamena egin dutela gehitu zuten prentsurrekoan Aralar alderdiko kideek.



Mikel Etxaniz, Iñigo Iñurrategi eta Ainhoa Larrañaga prentsurrekoaren ostean.

## LABUR

### Debagoieneko Mankomunitaterako ordezkariak onartu ditu udalbatzak

Mankomunitateko batzorde informatzaileetarako ordezkariak onartu zituen udalbatzak aurreko egunean. Honako hauek dira Debagoieneko Mankomunitateko batzorde ezberdinetarako Udaleko ordezkariak: Kontu batzorde berezia, Ogasuna eta Pertsonala eta Lurralde antolamendua batzordeetarako, Jose Antonio Etxeberria; Ingurumen batzorderako, Igor Oyarbide; Hiltegitako eta Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziarako, German Murua; mendiaraz, eta Bestelako zerbitzueterako, Juan Jose Arrieta.

**UDAL TASAK/** Salbuespenen artean, urak %8,59ko igoera izango du eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak, berriz, %8,71koa

# Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengatik %3,5 gehiago ordainduko dugu 2004an

MONIKA BELASTEGI

Joan den egunean onartu zuten udalbatzak datorren urterako ordenantza fiskala. Horrela, 2004an %3,5 igoko dira Udalarari ordaintzen dizkiogun tasak. Hala eta guztiz ere, badira igoera handiagoa izango duten zerbitzuak; urarena, esate baterako.

Ordenantza fiskalok joan den egunean onartu zituen udalbatzak, EAJ-EAren eta Aralarren aldeko botoekin. Alderdi sozialista eta popularra abstenitu egin ziren eta Ezker Batuko zinegotzia ez zen bilkuran izan.

2004ko ordenantza fiskalen tasak ezartzeko orduan eta horien igoera erabakitze orduan KPI-aren (Kontsumo Prezioen Indizea) igoera hartzen dute kontuan Udaleko arduradunek. Hau da, iazko irailetik aurtengo irailera izan duen igoera. Gipuzkoan %2,8 igo da, eta erreferentzia hori kontuan izanda, tasak %3,5 igotzea erabaki dute. Hala ere, ez diete Udaleko zerbitzu guztiei igoera bera aplikatuko: batzuek igoera handiagoa izango dute, beste batzuek txikiagoa eta bakanen batek berdina segituko du.

## ZERBITZU BATZUK %3,5 ETIK GORA

Hilerria, ura eta ibilgailuen gaineko zerbitzua dira %3,5 gaintzen dutenak. Hilerriaren kasuan, tarifek %4 egingo dute



ARTIBOIA

Lur azpian zein nitxoan ehorzteagatik 2004an berdina ordainduko dugu.

gora. Igoeraren arrazoia da zerbitzua defizitarioa dela. Bestalde, azkeneko urteetan nitxoko ehorzketei igoera handiagoa aplikatzen zieten lurpeko ehorzketei baino, bien artean zegoen prezio diferentzia parekatzen joateko. Aurten dagoeneko bie aplikatu

dieta igoera bera: %4koa.

Urari dagokionez, igoera %8,59koa izango da. Udaleko iturrien esanetan, arrazoia da Gipuzkoako Ur Partzuergoak altako uraren prezioa igo egin duela, eta kostu horiei aurre egiteko igo dute uraren prezioa.

## Turismoen gaineko zerga

	2003	Igoera	2004
< 9 zaldi fiskal	31,70 €	%8,71	34,50 €
9 - 11,99 zaldi fiskal	63,45 €	%8,71	68,95 €
12 - 13,99 zaldi fiskal	105,70 €	%8,	114,90 €
14 - 15,99 zaldi fiskal	148,00 €	%8,71	160,90 €
16 - 19,99 zaldi fiskal	190,30 €	%8,71	206,85 €
> 20 zaldi fiskal	232,60 €	%8,71	252,85 €

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, oro har %8,71 igo dute. Hori horrela, zaldi fiskalen araberako tasa berriak zein izango diren alboko taulan ikus daitezke. Igoeraren arrazoia da %33ko ezintasuna errekonozituta dutenek ez dutela zirkulazio zergarik ordaindu beharrik izango. Horrek txikitu egingo du zergadunen kopurua eta ondorioz, igo egin dute ibilgailuen gaineko tarifa, batukoa den diru kopuruak behera egin ez dezan.

Igerilekuei dagokionez, Udalak prezioak ez igotzea erabaki du, zerbitzua guztiz egoki eta osoa eskaintzen ez duelako. Horrez gain, gainerako kirol eskaintzak %3,5 igoko dira.

## HAINBAT BERRITASUN KONTRIBUZIOAREN GAINEAN

Kontribuzioari dagokionez, hainbat berritasun izango dira datorren urtean. Batetik, familia ugariak gutxiago ordainduko dute: hiru seme-alaben kasuan, kontribuzioaren erdia; lauren kasuan, %70 gutxiago; eta 5en kasuan, %90 gutxiago. Horrekin batera, bi seme-alaba izan baina bietako bat minusbaliatua bada, erdia ordainduko da.

Bestetik, hutsik dauden etxeen kasuan, %50 igoko da kontribuzioa. Igoera gertatu aurretik, baina, etxe hutsa zer den erabakitze irizpide araudia onartu beharko dute. Erabaki horren asmoa da horrenbeste etxe huts ez egotea.



# ARRANO Taberna

Kruz Gallastegi 5 • Tel. 943 76 02 54

Lepoan hartu ta  
segi aurrera



# ARAMBURU H O R T Z K L I N I K A


- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Protesiak
- Kirurgia
- Implanteak
- Estetika
- Endodontzia

Telesforo Aranzadi 1, behea.  
943 76 02 46. Bergara



## TOSTOI ETA ERREILENOEKIN TOLEDORA

**B**ergarako Tostoi eta Erreilenoen Kofradiako lagunak Toledon izan ziren aste bukaeran. Hango Mantxako Gaztako Kofradiak hainbat lagun ohorezko kofradia kide izendatu zituen, eta Estatu osoko 17 kofradiako ordezkariak izan ziren ekitaldian. Ondoren, Toledoko Emperatriz hotelean afaria izan zuten. Tostoi eta Erreilenoen Kofradia ordezkatzuz, Sebas Agirre, Iñaki Berasategi eta Bittor Alberdi izan ziren Toledon. Oraingo aste bukaeran Iparraldera, Espeletera joateko gonbidatu dituzte, hango Piperraren Kofradiaren ekitaldira.



## KONTSUMO BUSA BERGARAN

**E**usko Jaurlaritzaren Kontsumo Busa Bergaran izan zen aurreko eguenean. Kontsumo zuzendaritzaren programa berria da aipatutako busa eta kontsumitzaileek ditugun eskubideen gaineko informazioa ematea du helburu. EAEko 30 herritan barreran ibiliko da datozen asteotan eta eguenean eta egubakoitzean Bergaran egin zuen parada. Bi egun horietan herritar asko hurbildu zen San Martin plazan zegoen Kontsumo Busera. Bi adituren laguntzaz, kontsultarako hainbat ordenagailu ziren autobusean. Argazkian, Victoriano Gallastegi alkatea Bergarako ikasle talde batekin.

## KOADRILA BATEK 37.416 EURO IRABAZI DITU LOTOAN

**H**erriko koadrila batek 37.416 euro irabazi ditu Lotoan. Joan zen eguenerako eta zapaturako 14 euroko apustu bat egin zuten Amaia Larrañagak Madurako 9. zerbakiaren duen dendan. Zapaturakoan, zerbaki osagarriaz gain, bost zerbakiko bat eta lau zerbakiko beste lau apustu irabazi zituzten. Hau izan zen saritutako konbinazioa: 8-15-17-22-28-26. Zerbaki osagarria, berriz, 2a. Esan bezala, sari ederra eskuratu du aipatutako koadrilak, 6,2 milioi pezeta inguru hain zuzen ere. Udako oporren ondoren eta Gabonetara begira primeran etorriko zaien dirua. Lagunarteko afaria ere egingo dute ziurrenik... Zorionak!!!



## KAI tabernan

19:00etatik  
21:00etara

ardo ondua, garagardoa,  
freskagarriak edo  
antzerakoak hartzean...

**BIKO** tabernan  
pintxo bat doan

## Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxekeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalatuak


(...) mireia alberdi  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45  
(s) 646 43 34 58  
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3  
20577 ANTZUOLA



MINGAINARITIRAKA



Jasone Zabaleta

URKIOLA JANTZI DENDAKOA

Jasonek ile apaintzaile ikasketak egin zituen Zarautzen eta zazpi bat urte eman ditu lanbide horretan. Gero, bi seme-alaba izan ondoren, lanari laga zion eta joan den martxoan ezker Urkiola jantzi dendan dihardu.

Emakume ala gizonezko gehiago etortzen da dendara?

Emakumeak gehiago.

Eta bietatik nork agintzen du aukeratzeko orduan?

Gizonek garbi izaten dituzte gauzak, baina zalantzarik badute emakumeek dute azken hitza.

Erosteko orduan markari garrantzia ematen diozu?

Bai, markak zeresana badauka...

Gustuko diseinatzaile bat? Eta gustatzen ez zaizun beste bat?

Armani eta Calvin Klein; Agatha Ruiz de la Prada egiten dituen gauzak, berriz, ez zaizkit gustatzen.

Urtaro gogokoena? Jantzi bat? Kolore bat?

Udaberria. Alkandora. Berdea.

Zer ez zenuke sekula jantziko?

Minifalda.

Zure bikotekideari arropa opari egiten diozu?

Noizean behin...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Familiarekin paseatzea.

Mendizalea zara? Inguruko mendi bat?

Bai. Nahiz eta aspaldian gutxi joan naizen, Urbia.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

La herbolera (Toti Martinez de Lezea)/ Tomates verdes fritos/Mikel Urdangarin.

Gustuko janari eta edari bana?

Entsalada on bat eta edateko, garagardoa edo sagardoa.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Plantxa.

Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?

Herriko albisteak.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?

Etxea erosiko nuke kostaldean.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Europara, Holanda aldera.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAK MUNDUAN

XABI BELDARRAIN

31 URTE / OSTALARITZAN DIHARDU LANEAN, MADRILEN

“Madril bezalako hiri handiek eskaintzen duten anonimotasuna oso gustuko dut”

EDU MENDIBIL

L

eioako Fakultatean Eskola Graduatua ikasi zuen larren, ostalaritzan dihardu lanean Xabi Beldarrainek: “Egia esatearren, ikasten nengoenean ere ez nuen oso gustuko aukeratzeko karrera. Laneko aholkulari egin dezaket lan, baina ez nau batere erakartzen horrek... Ostalaritzan gustura nabil. Oso lan lotua da eta normalean gaizki ordaindutakoa, baina gustuko ofizioa dut; azken baten, oso gaztetatik hori egin izan dut-eta, familiako jate txean”.

Datorren urteko maiatzean zazpi urte izango dira Xabi Madrileran joan zenetik. Hasieran ez zuen garbi nora jo: “Bergararik ateratzeko gogoia neukan eta Kanarietara joateko ideiarekin alde egin nuen. Baina bidean geratu nintzen, Madrilen”.

Esan bezala, hasieratik ostalaritzan egin du lan Xabik: “Dagoneko sei bat taberna eta jate txetan izan naiz lanean eta joan den abuztua ezker El Rincon de Piedra izeneko jate txer argentinarran nabil lanean. Jate txer berria da eta zerbitzari lanetan dihardut. Nahiko harrera ona izan du jate txerak, eta pozik gaudela. Lan dezente izaten dugu aste osoan”. El Rincon de Piedra Huer-tasen dago, Santa Maria kalean, hain zuzen ere.

Lanak aisialdirako tarte txikia lagatzen dio Xabiri: “Astean barrena lanetik aparte gauza gutxi egiten dut. Hala ere, beti dago aukera lagunekin elkartu eta pare bat trago hartzeko. Normalean domeka gauetan eta astelehenean egun osoz izaten dut jai. Madrilek oso eskaintza zabala du eta hemen ez dago aspertzeko tarterik, beti dago ikusteko edo egiteko zerbaite. Esate baterako, domekan Queen izeneko musika ikustera joango gara.


“Abuztua ezker El Rincon de Piedra jate txer argentinarran dihardut, zerbitzari”

Zinemara sarritan joaten naiz. Eta martxako tokie dagokienez, Chuecan ibiltzen gara nagusiki. Hori bai, nahiko garestia da Madril parranda egiteko, kopa bategatik zazpi euro kentzen dizkizute-eta. Baina giro aparta dago. Lagun koadrilan, Madrilgo jendea ez ezik, toki askotako jendea ibiltzen gara: Estatuko hainbat lekutakoak, marokorak, kolonbiarrak, ekuadortarrak... Izan ere, jende nahaste horrek oso erakarri egiten du Madril”.

Alokairuko hainbat etxetan egon ondoren, lehengo urtean etxea erosi zuen Xabik Carabanchelen: “Bikotekidearekin bizi naiz. Carabanchel asko gustatzen zaigu, oso toki lasaia da. Gainera, metro eta autobus paradak etxetik oso gertu ditugu. Hemen ez du merezi autoa hartzerik, hobe da leku batetik bestera metroan edo autobusean mugitzea”.

Hiri handi batek eskaintzen duen anonimotasuna gustuko du Xabik: “Hasieran gogorra egiten da, Bergaran ohituta gaudelako kalean ikusten ditugun gehienak agurtzera. Hemen, berriz, metroan sartu, libururen bat irakurtzen hasi eta lanera heldu bitartean ez da inor agurtzen. Eta gauean ere berdin, egun batetik bestera jende ezberdinarekin egiten delako topo. Ohitutakoan oso ondo dago inorendako ezagun ez izatea; hiri handien xarma da hori, nire iritziz”.

Ahal duenean Bergarara etortzen ahalegintzen da Xabi, familiakoak eta lagunak agurtzera. Orain dela bi aste anaiaren ezkontzarako etorri zen eta Gabonetan berriro itzuliko da herrira: “Eskapada laburrak egiten ditut Bergarara, eta gustura ibiltzen naiz han. Lagunak ere etorri izan zaizkit bisitan hona. Nahiko gertu daude Madril eta Bergara eta, horrela, harremanari eusteko ez dago arazorik”.



- L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaingitu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

ATLETISMOA

# Behobia Txiki lasterketaren zortzigarren ekitaldia jokatu da zapatu goizean

Agorrosingo igerilekutik egingo da irteera, 10:30ean, eta partaideek Soralezera bitarteko joan-etorria egingo dute bidegorritik

EDU MENDIBIL

**Bihar, zapatua, Behobia Txiki herri lasterketaren zortzigarren ekitaldia jokatu da, 10:30ean, Agorrosingo igerilekutik hasita. Behobia-Donostiaren atariko probak 100 bat korrikalari bilduko ditu bihar. Ibilbidea 15 Km-koa izango da.**

Ohikoa denez, partaideek Bergara eta Soralezera arteko joan-etorria egingo dute. Korrikalariak hainbat urtez aldarrikatu dute tarte horretan bidegorria egitea eta lanak hasita daudenez, hori ospatzea da biharko lasterketaren helburuetako bat. Azken urteotan 100 bat korrikalari bildu izan dira Behobia Txiki herri lasterketan eta bihar ere kopuru horri eustea da antolatzaileen asmoa.

Lasterketa, esan bezala, Agorrosingo igerilekutik egingo da, 10:30ean. Korrikalariak 15 Km-ko ibilbidea beteko dute. Antolatuzaileek urtero errepikatzen dutenez, erritmo lasaian eta jai giroan korrika egitea da helburua. Biharko lasterketan parte hartzeko ez dago aurrez izena eman beharrik. Animatzen direnendako 10:30ean da hitzordua, Ago-

rrosinen. Probaren bultzatzaileek herriko korrikalari guztiei dei egiten diete proban parte hartzeko. Biharko proba ondo etorriko zaie Behobia-Donostia gertatzen ari direnei.

## BEHOBIA-DONOSTIA AZAROAREN 9AN

Behobia-Donostia korrika lasterketa azaroaren 9an jokatu da, eta izenematea zabalik dago. Bergaran, Lazkano oinetako dandan eman dezakezue izeña urriaren 30era arte. Zenbaki zuriak eta gorriak bakarrik banatuko dituzte bertan. Partaide bakoitzak 18,50 euro ordaindu beharko ditu lasterketan parte hartzearen. Aurtun ere txiparekin aterako dira korrikalariak eta lasterketa bukatutakoan txipa itzultzen dutenei bost euro bueltatuko dizkiete.

Lasterketaren inguruko informazioa [www.behobia-sansebastian.com](http://www.behobia-sansebastian.com) webgunean edo proba antolatzen duen Fortuna taldearen 943 45 57 33 telefono zenbakian jaso dezakezue. Aurtengoa lasterketaren 39. ekitaldia izango da. Azken urteotan bergarar askok eta askok hartu izan dute parte 20 kilometroko proba horretan. Eta aurtun ere beste horrenbeste gertatuko da.



Biharko Behobia Txiki herri lasterketa primeran etorriko zaie Behobia-Donostia gertatzen ari direnei.

## Peña Athletic taldeak Valladolidera irteera egingo du domekan

E.M.

**Peña Athletic taldeak Valladolid-Athletic partidua ikustera joateko irteera antolatu du domekarako, urriak 26. Aurtengo denboraldian herriko Athleticzaleek egiten duten lehen irteera izango da.**

Domekan 08:30ean aterako dira Valladolid aldera eta bidean hamarretako egingo dute. Eguerdi aldera iritsiko dira Valladolidera eta bazkalostean partidua ikustera joango dira Jose Zorrilla futbol zelaira. Izenematea Toki-Ona ostatuan egin daiteke.

Athletic Valladoliden aurretik da sailkapenean: bilbotarrak 6. tokian dira, 11 punturekin, eta Valladolid, berriz, 15. postuan dago, 7 punturekin. Aurtun Zorrillan jokatuako partiduetan, Valladolidek Espanyoli (3-1) eta Malagari (1-0) irabazi die eta Racingen aurka galdu egin zuen (0-4). Athleticcek bi puntu lortu ditu etxetik kanpo, Murciaren (2-2) eta Betisen (1-1) aurka. Deportiboren aurka, berriz, 2-0 galdu zuen Coruñan.



Athleticek Vila-reali irabazi zion domekan San Mamesen, 2-0.

Valladolideko Zorrilla estadia Valladoliden eta Athleticen arteko partidua batekin inauguratu zuten, 1982an. Orduan Valladolidek irabazi zion Clementek zuzentzen zuten taldeari, 1-0.

## ALDAKETAK ZUZENDARITZAN

Igor Larrañaga da Peña Athleticen president berria eta Juan Carlos Riverok presidenteorde kargua izango du. Idazkaria Brigido Gonzalez izango da.

## Lau partidu jokatu dira gaur Udal Pilotalekuan

E.M.

Gipuzkoako Txapelketako lau partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:15ean hasita. Bigarren kadete mailako bikoteak Andoaino Gazte Leku taldearen aurka jokatu du; ondoren, lehen kadete mailako BKEko pilotariak Zazpi Iturrikoen aurka neurtuko dituzte

indarrak eta, hirugarren partiduan, bigarren senior mailako bikoteak Zazpi Iturri hartuko du baita. Azkenik, lehen senior mailan, Bergara eta Arrasateko bikoteak izango dira aurrez aurre.

Gaurkoa txapelketako laugarren jardunaldia da. Gipuzkoako 16 talde dihardute txapelketan. Finalak Gabonen aurretik jokatu dira.



Gipuzkoako Txapelketako laugarren jardunaldia jokatu da gaur Udal Pilotalekuan.

FUTBOLA

# Bergara lidertzaren bila Real Unionen aurka bihar, Agorrosingo futbolzelaian

Mahoneroak sailkapeneko bigarren tokian dira, Elgoibar liderrarekin eta Mondragon taldearekin berdinduta

**Preferente mailako Bergara futbol taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, Agorrosin, 16:30ean. Irundarrei irabaziz gero, mahoneroek lidertza eskura dezakete.**

Joan zen zapatuan Hondarribian irabazi ondoren (0-1), bergararak sailkapeneko bigarren tokian ditugu, 14 punturekin, Elgoibar liderrarekin eta Mondragon taldearekin berdinduta, baina zuzen erē. Oraindik partidurik galduta ez duen Zarautz taldea laugarren tokian dago, 13 punturekin.

Zapatuan Hondartzara egindako bisitaldian Bergarak partidu ona egin zuen eta hiru puntuak ekarri zituen Hondarribiatik. Inaki Muxikak egin zuen partiduko gol bakarra, 26. minutuan. Bihar, berriz, Real Union taldea izango dute bisitari Juanina Garairen mutilek. Bergara sendo dabil etxeko partiduetan. Orain dela 15 egun 5-1 irabazi zion Touringi Agorrosin eta bertara joandako zaleek etxeko jokoarekin gozatzeko aukera izan zuten. Bihar ere hiru puntuak etxean geratzeko da mahoneroen asmoa. Real Union historikoaren bigarren taldea sailkapeneko erdialdean dago, 10 punturekin. Joan zen hastean 0-0 egin zuten etxe-



OLAIA MONDRAGON

Bergarak Tolosa, Hernani eta Touring mendean hartu ditu Agorrosin aurtengo ligan.

an, Santo Tomas Lizeoa taldearen aurka.

**HIRU PARTIDU IPINTZAN**

Lehen mailako gazte taldeak ere bihar jokatuko du, goizez, Antiguokoren aurka, Ipintzan,

12:00etan. Arratsaldean, berriz, senior mailako nesken taldeak Lagun Onak taldearen bisita jasoko du Ipintzan, 18:15ean. Domekan, futbol-8ko nesken taldeak Gasteiz taldearen aurka neurtureko dituz indarrak, 11:30ean.

Joan zen asteko jardunaldian, lehen erregional mailako Bergarako taldeak 0-4 galduta zuten Ostar dar liderraren aurka. Ohorezko gazte mailako Bergarako taldeak ere etxean galduta zuten Ordiziaren aurka, 1-2.

ESKUBALOIA

**Bi partidu jokatuko dira zapatuan kiroldegian**

Bihar, zapatua, bi eskubalo partidu jokatuko dira Labe-garaietan. Gazte mailako mutilen taldeak Legazpiren aurka jokatuko du, 16:15ean. Ondoren, senior mailako nesken taldeak Ereintza hartuko du, 18:00etan. Ligako lehen partidua 24-15 galduta zuten neskek, San Adrianen aurka.

TXIRRINDULARITZA

**Txirrinduzaleen azken irteera domekan**

Bergarako Txirrindulari Elkarte lagunek denboraldiko azken irteera egingo dute domekan, urriak 26. Dorletara joango dira, 09:00etan San Martin plazatik irtenda. Ondoren, Zuloa elkartearen luntxa izango dute. Azaroaren 15ean batzarra eta denboraldiko afaria egingo dute Zuloan.

SASKIBALOIA

**Kadete mailako Lacor taldearen partidua bihar**

Bihar, zapatua, kadete mailako Lacor taldeak Arrasate-ren aurkako derbia jokatuko du kiroldegian, 12:00etan. Kadete mailako mutilen beste taldeak, Aranetak, etxetik kanpo jokatuko du oraingoan. Joan zen zapatuan Aranetak 54-42 irabazi zion Easo B taldeari Bergaran.

FOTOKIROLA



**Shotokan taldekoak bikain Usurbilen eta Aretxabaletan**

Shotokan taldeko neskek emaitza bikainak lortu zituzten Usurbilen jokatutako Gipuzkoako Txapelketan. Benjamin mailan Haizea Inarra izan zen txapelduna, eta Jone Agirrezabal bigarren geratu zen: alebin eta infantil mailetan, hurrenez hurren, Ane Vicentek eta Aitziber Ferreirok hirugarren postua lortu zuten eta kadete mailako artean Rakel Blanco bigarren sailkatu zen. Bestalde, Aretxabaletan, 14 urtetik gerriko marroi arteko Promozio Txapelketan, Unai Zabarte katetan lehena eta kumitetan bigarrena izan zen eta Ainhoa Zafra bigarren sailkatu zen kumitetan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA


**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK**

**ZAPATUAN, BARRUAN**

- 09:30: Kalaveras-Fac. Santana.
- 10:30: Mongatxurak-Santana. Kalaveras
- 19:00: Ganbara-Artusamak. De resaka
- 20:00: De resaka-Teatekh. Artusamak

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 09:30: Txipiron-Komando Piperrak. Errotag.
- 10:30: Errotagain-Toten Añiketan. K. Piperr.
- 11:30: Irubide-Canalejas. Belengua
- 12:30: Belengua-Vervenir. Irubide
- 16:00: Dedo Pafarru-Fit automoc... PDS
- 17:00: Argandolas-PDS. Dedo Pafarru
- 18:00: Etengabe-Pirulotarrak. Torrekua
- 19:00: Cosa nostra-Torrekua. Pirulotarrak



## ELKARRIZKETA

XANTI ANTERO/TXAN MAGOA

# “Magiarekin ikusleengan ilusioa piztea atsegin dut gehien”

EDU MENDIBIL

**T**xan magoaren ikuskizuna izango da domekan Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Xanti Antero (Donostia, 1963) dugu Txan. Domekan haur eta nagusiak txunditzen saiatuko da *Magiaz blai* ikuskizuneko trikimailuekin.

## Zelako ikuskizuna da *Magiaz blai*?

Elementu arruntak (papera, boligrafoak, soka bat...) erabiliz hainbat trikimailu egiten ditut, elementu horiek magiko bihurtzen ditut. Animaliatxoren bat ere azalduko da... Musikak berebiziko garrantzia dauka giroa sortzeko. Pilotaleku bat ez da magia ikuskizun baterako aretorik egokiena, baina giro berezia sortzen ahaleginduko gara. Haur eta nagusiendako trikimailuak dira, nahiz eta helduak gehiago inplikatzin diren. Azken baten, helduek hobeto ulertzen dute aurrean duten lana. Umeek, berriz, fantasia handia dute, magian sinesten dute.

## Zelako magia atsegin duzu?

Magia mota asko dago: zuria, beltza... Niri, ikusleengan ilusioa piztea gustatzen zait gehien. Magoak, logika erabilia, trikimailuak prestatzen ditu, ilogikaren bitartez ikuslea engainatzeko. Hori da ilusioa piztea niretako.

## Eta non ikasten dituzu trikimailuak?

Liburuetatik. Nire hasiera oso latza izan zen, magia liburuak topatzea ia ezinezkoa zelako. Nahiko etsita nengoen eta halako baten, orain dela 12 bat urtedo, lagun batek Patrick Page



ARTXIBOA

*“Umeek fantasia handia dute, magian sinesten dute; helduak gehiago inplikatzin dira”*

mago ingelesaren liburu bat utzi zidan. Beste mundu bat erakutsi zidan liburu hark, erabakigarria izan zen ni mago izateko.

## Zeintzuk dira zure trikimailu faboritoak?

Joko guztiekin pilo bat goza-

tzen dut eta ikusleek sumatuko dute hori. Hala ere, gora eta behera nire inguruan aireratzen den esfera batekin egindako joko oso ikusgarria da eta sokarekin egindakoak ere gogoko ditut. Momentuaren arabera, desafio puntu bat eskatzen duten jokoei erakartzen naute.

## Aukeran, artxila murtxila zure hitz magikoak esan eta zer ateratzen zenuke txisteratik?

Borondate ona, zentzua. Asmo txarrak desagerrarazi egin beharko nituzke, euskaldunok euskaldun bezala bizi izateko aukera izan dezagun. Agian politikorik gabe herritarrok segituan konponduko ginatke.

## ‘Bertsokolax’ ikuskizuna

Aurreko zapatuan jende ugari batu zen Uned-eko areto nagusian bertso eskolako kideen ikuskizunarekin gozatzera. Bertsokolax ikuskizunean bertsoak, musika eta antzerkia uztartu zituzten helduen bertso eskolako kideek eta hurbildu ziren guztiek barre egiteko aukera aparta izan zuten entzundako gauzeekin. Orain, ikasturtea hasi berri dagoela, buru belarri murgilduko dira ikasleak bertso eskolan. Aurrerago, dena den, harrituko gaituzte beste ikuskizunen batekin./M.B.



## ‘El feeling es así’ antzezlanaren egubakoitzean gaztetxean

MONIKA BELASTEGI

Datorren egubakoitzean, hilaren 31n, *El feeling es así* antzezlanaren ikusteko aukera egongo da gaztetxean, 22:30ean, Tearto taldearen eskutik. Bi neskak osatzen duten taldea, Enriqueta Vegak eta Maria Urzelai bergararrak.

Ekainean estreinatu zuten antzezlanaren Bilboko Laressistens aretoan eta egubakoitzean herrira ekarriko dute.

## BIZITZARI PIZGARRIREN BAT AURKITU NAHIAN

Gidoigile, aktore eta zuzendari lana egiten dute taldeko bi kide-

ek, eta Maria Urzelai azaldu duenez, batik batik, eskenatokiaren ondo pasatzeko pentsatuta dagoen lana da. Bi emakumeren gorabeherak kontatuko dituzte *El feeling es así* antzezlanean Urzelai kontatu duenez. Bi protagonistak aspertuta bizi dira eta bizitzari pizgarriren bat aurkitzeko eta ondo pasatzeko elkartzera erabakitzen dute.

Haien lagunak onena musika ekipoa izango da; horixe izango da euren bizitzaren zentroa. Urzelai gehitu duenez, munduaren gaineko ikuspegi kritikoa erabadien protagonisten, eta hainbat gauza ere salatzen dituzte.

## KULTURAPILULAK

### Ascensio Esnaolak taila ikastaroa emango du azarotik aurrera eguaztenetan eta eguaztenetan

Azaroaren 5ean hasiko da taila ikastaroa. Eguazten eta eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara, Zabalotegi aretoan. Irakaslea Ascensio Esnaola izango da, eta gazteak animatu nahi dituzte bereziki ikastaroan parte hartzera. Izena emateko esandako ordue-tan pasatu Zabalotegiko aretotik.

### Udal Musika Bandaren azken emanaldia Arrate irradian emango dute etzi, domekan

Udal Musika bandak aurreko domekan Udal pilotalekuan egin zuen kontzertuan irradian entzuteko aukera egongo da. Arrate irrati-koak Udal pilotalekuan izan ziren eta emanaldia grabatu egin zuten. Etzi, domeka, emango dute kontzertua, 12:00etan. Udal Musika Bandak honako egitaraua egin zuen: A. G. Chirlaqueren, *Beti lagunak* martxa; B. Appermont-en, *Ivanhoe*; A. Silvestri-ren, *Forrest Gump suite* soinu banda; P. Sorozabalaren, *Katuska* lehen fantasia eta T. Mashima-ren *Disney Festival*. Ohi bezala, zuzendari lanetan Alfredo Gonzalez Chirlaque-k jardungo du.

### Pol-Pol Argazki Taldeak argazki ikastaroa antolatu du datorren hilabeterako

Azaroaren 11n, 12an, 17an, 18an, 19an, 24an, 25ean eta 26an izango da, 19:15etik 21:00etara, Zabalotegin. Honako gaiak landuko dira: zure makina, diafragma, obturadorea, objektiboak, argia, pelikula, argia neurtzea, flasha, filtroak, hurbiltze argazkiak eta komposaketa. Plaza mugatuak dira: gehienez 20 ikasle eta gutxienez 10. Prezioa 40 eurokoa da, eta izena kultura etxean eman behar da.

### ‘Nilo, Afrikako altxorra’ ikusentzunezkoa emango du Angel Cuerdo eguenean

Zabalotegi aretoan izango da, 19:00etan. Angel Cuerdo bidaiariak Nilo ibaiak Egipto zeharkatzen duen tartea oinarri hartuta, hainbat diapositiba emango ditu. Sudan-ekin muga egiten duen Abu Sinbel tenpluan hasi Alejandrian bukatuko da bidaiak. Emanaldia Udazken Kulturala egitarauaren barruan dago eta Udal Euskaltegian antolatu du Kutxaren laguntzarekin.

### Sara Otañoren pintura erakusketa zabalduko dute kultura etxean datorren egubakoitzean

Urriaren 31tik azaroaren 9ra bitartean izango da erakusketa eta 20 koadro inguruk osatuko dute. Garrantzia handia ematen dio Otañok koloreari, eta bere lana koloristatzen definitu du. Otaño bergararra da jaiotzez, baina urte asko darama Hondarribin bizitzen. Celestino Otaño margolaria zenaren alaba da.

GUREGAIK / MUSIKA

# Gazteak dira disko erosle finenak eta euskal musika taldeak dituzte gustukoak

**E**dozein gazteri galdetuta ere, musika entzutea izaten dute gehienek zaletasunetako bat. Hainbat disko saltzailek azaldu digutenez, gainera, gazteak dira disko erosle finenak.

Disko saltzaileek, behinik behin, argi daukate: gazteek erosten dituzte musika disko gehien. Batez ere, musika gogorra dute gustuko eta euskal taldeen musika, gainera. Begiratu bestela azkenaldian herriko dendetan gehien saldu dituzten diskoak zeintzuk izan diren: Ameriketako Estatu Batuetako Ill Niño taldearen *Confession*, Kuraiaren *Iluntasunari barre* eta Berri Txarrak taldearen *Libre* daude lehen postuetan. Eta hortik aurrera gehien saldu dituzten disko gehienak euskal taldeenak izan dira: Ken 7, Gatibu, eta abar.

Nesken eta mutilen artean badago ezberdintasunik; mutilei, orokorrean, musika gogorragoa gustatzen ei zaie.

Diru dezente gastatzen dute gazteek diskoak erosten. Kontuan hartu behar dugu batez beste 18 euro balio duela CD batek. Dena dela, euskal taldeen diskoak zertxobait merkeagoak izaten dira.

**TOP MANTA' FENOMENOA**

Diskoen prezio garestiek zerikusi handia izan dute, jakina, *top manta* delako fenomenoarekin. Eragin handia izan du fenomeno horrek disko salmentetan azkeneko urteotan. Herriko saltzaileek ere nabaritu dute hori, baina datu bitxi bat eman digute horrekin lotuta: jende heldua ei da piratetatutako disko horiek gehien erosten dituenak. Gazteek, aldiz, nahiago izaten dituzte disko originalak: soinu hobea dutelako, argazkiak dituztelako... Datu

bitxia dela diogu, izan ere, uste izatekoa da gazteek diru gutxiago izaten dutela. Dena dela, saltzaileek ikusten dutenez, jende heldua arduratzen da gehien pre-

zioaz: eskaintza bereziak daudean galdetzeraz joaten direnak, hasieratik prezioa galdetzen dutenak eta, esan bezala, kalean diskoak erosten dituztenak ez dira

gazteak izaten, helduak baizik. Gazteek, aldiz, argi izaten dute disko jakin bat nahi dutela, eta prezioaz arduratu barik, diskoa erosi egiten dute.

Horrek argi lagatzen du zelako garrantzia daukan musikak gazteengan. Esan bezala, musika izaten dute zaletasun handienetakoa.

Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.** Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobea den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzù eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
San Juan Erreka 33  
20570 - Bergara  
Tel.: 943 763 642  
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

*Jende helduak erosten ditu, gehienbat, kalean saltzen dituzten diskoak*

*Disko salduenen artean, gehienak euskal taldeenak dira: Kuraia, Berri Txarrak...*

ELKARRIZKETA

VICENTE MADDOZ/ARGIBIDE FUNDAZIOKO MEDIKU PSIKIATRA

“Erretiratutakoan gure nortasuna garatzen segitu behar dugu”

EDU MENDIBIL

**A**rgibide Fundazioko Vicente Madoz mediku psikiatrak bi hitzaldi egin ditu erretiratuen Kultur Hamabostaldian: *La actividad sanadora* izenburukoa, urriaren 14an, eta *El arte de ser mayor*, atzo eskainitakoa.

**Zertan datza nagusi izatearen artea?**

*Izaten* segitzean jakitean, hain zuzen ere. Horrekin zera esan nahi dut: topera bizi izatea, gure nortasuna eta harremanak garatzen segitzeko.

**Zein izan beharko litzateke erretiratuen zeregina gaurko gizartearen?**

Gizartearen zutabetako bat izatea, gizarte elkartuagoa eta bihozberagoa izateko. Izan ere,


gaurko gizarteak umeei laguntzeko dena ematen du eta nagusiak baztertu egiten ditu, ez ditu estimatzen behar bezala.

**Zein da nagusiek gizartearen aktibo segitzeko modua?**

Gure inguruko gauzetan, inolako konplexurik gabe, ilusioz parte hartzeko gogoari eustea. **Erretiratuen egoitzek gaurko beharretara egokitzeko beharra daukate?**

Bai, heziketarako eta hausnarketarako jarduera gehiago eduki beharko lukete, ez bakarrik dibertimenduzko ekitaldiak. **Iaz ere Kultur Hamabostaldian hartu zenuen parte. Zein iritzi duzu hemengo erretiratuen gainean?**

Oso elkarte bizia da hemengo. Beste kolektibo batzuek dituzten konplexu eta beldurrak ez dituzte. Osasungarria da oso.



ZAHARRAK BERRI

Herri bazkaria Kultur Hamabostaldia agurtzeko

E.M.

**E**rretiratuen Kultur Hamabostaldia amaitzeko, herri bazkaria egingo dute bihar, zapatua, Tartufo jatetxean.

*Edadetuak, gizarte aldaketaren bultzatzaile* izan da aurtengo Kultur Hamabostaldirako erretiratuek aukeratu zuten leloa. Hala, gai horren inguruan hainbat hitzaldi eta bestelako kultura ekitaldiak izan dira joan zen urriaren 9a ezker eta bihar, zapatua, bukatuko da Hamabostaldia. Ohikoa denez, erretiratuek bazkaria egingo dute kultura jardunaldiak agurtzeko. Hain zuzen ere, bazkaria bihar, zapatua, izango da Tartufo jatetxean, 14:30ean. Ehun lagun inguru elkartuko dira bertan.

Aurretik, gaur, egubakoitza, Antzuolako eta Bergarako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikaslearen artean antolatutako idazlan lehiaketako sari banaketa egingo dute Novedades aretoan, 19:00etan. Ikasleek belaunaldi arteko harremanak jorratu dituzte. Saritutako lanen irakurketa egin ondoren Fredy magoaren saioa izango da.

**LIBURU AURKEZPENA EGUBAKOITZEAN**

Bestalde, Xabier Ibartzabalek idatzitako *Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* liburua aurkeztuko dute egubakoitzean, hilaren 31n, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Liburuan erretiratuen elkarteak izan duen ibilbidea jasotzen da, 1972an Aitonak elkarte sortu zutenetik gaur egunera arte, hain zuzen ere.




Iaz Zabalotegiko frontoian egin zuten erretiratuek Kultur Hamabostaldiko bazkaria.

**JOXAN  
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**AZPEITXI**

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Eustakio Agirreolea (II)

UDAL ARTXIBOA

**A**girreolearen lehen lan handia Antzuolako Errukizko Amaren eliza dekoratzea izan zen (1891). Erdiko nabearen abiapuntua apaintzeko eskatu zituen: lau ebanjelistak margotu zituen, ikonografia tradizionalari jarraituz. Dirudienez, garai hartan Mariaren Lagundiko kapera apaintzen ere lagundu zuen.

1901eko lan-multzo onenetakoak Angiozarko San Migel elizakoak dira. Agirreoleak bi margolan handi egin zituen presbiterioko bi hormetan. Angiozarko Elizamendi ermitan ere badaude Agirreolearen lanak. 1905ean beste bi lan egin zituen, biak ere erlijiosoak, ohiko zuen moduan: San Martin Agirrereren martirioa irudikatzen duena Santa Marinako koruan dago eta Loiolako San Ignazio buruzkoa San Martzialeko ermitan.

Ordurako hainbat argitalpenendako argazkiak ateratzen hasita zegoen. 1926ko udan Eusko Ikaskuntzaren IV. Biltzarrean hartu zuen parte, Gasteizen. Irakasle lana da Agirreolearen alderdi ezagunenetakoa: marrazki irakaslea zen eta bergarar askori eskolak eman zizkien urtetan.

*San Martin Agirrereren martirioa irudikatzeko lana egin zuen 1905ean; Santa Marinan dago*



Eustakio Agirreolearen autorretratu bat.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

XVII. eta XVI. mendeetako zein etxetan daude armariok?

GALDEDEBALDE

- 1.** Zein da Bergarako Peña Athleticeko presidente berria?  
A/ Mikel Aiaustui.  
B/ Igor Larrañaga.  
C/ Juan Mari Azpiazu.
- 2.** Zein da Txan mago ezagunaren benetako izena?  
A/ Josean Mujika.  
B/ Xanti Antero.  
C/ Agustin Lertxundi.
- 3.** Zein izan da erretiratuen Kultur Hamabostaldiko aurtengo leloa?  
A/ Edadetuak, gizarte aldaketaren bultzatzaile.  
B/ Edadetuak, erronka berriei aurre eginez.  
C/ Edadetuak, gizartearen alde lanean.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**TERE GURIDI**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Tere!  
Erantzunak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Iparragirre kalean eta eskumakoa Gorla-ko kantuan, Iturriberriko atsedean lekuan / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Aros ultra**

Baxera garbitzekoa, 750 ml.

**1€**

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**EL CARMEN**

GARBIKETA  
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA  
**Amaia Lakuntza**  
Urriaren 24an, 1 urte.  
Urte askotarako!  
Asier.



ELGETA  
**Maialen Alkorta**  
Urriaren 26an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ELGETA  
**Mikele Arkarazo**  
Urriaren 25an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Mikel Azkarate**  
Urriaren 27an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Andoni Najera**  
Urriaren 27an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA  
**Leire Sanz**  
Urriaren 30an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Judit Sagasta**  
Urriaren 23an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maialen Rodríguez**  
Urriaren 25an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**June Nogueiras**  
Urriaren 24an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, bereziki, Iker.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia,  
Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia,  
astelehenetan 17:00etatik  
19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua





# PROFESIONAL *liberalen* GIDA

## GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

## AHOLKULARITZA

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**  
Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ZUHURKI SL**  
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

## ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

## ARKITEKTU TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**

Zurradero 4. 943 76 53 53

## ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko urriaren 24a / 175. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

ANJEL ALKAIN/GORRINGO TALDEKO AKTOREA

## “Antzerkia euskaraz ikusteko eta barre egiteko premia handia dago”

AINZANE IRIZAR

**G**orringo taldeak *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlana eskainiko digu zapatuan, hilak 25, 22:00etan, frontoian. Anjel Alkain aktore ezaguna dugu taldeko kideetako bat, eta berarekin berba egin dugu.

**Martxoan antzezlana estreinatu zenutenetik sekulako arrakasta izan duzue. Espero zenuten hainbesterainoko arrakasta izatea?**

Ezta pentsatu ere; hori bai, nik uste nuen aukeraketa ona egin genuela: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburu salduena da, irakurriena, barre egitekoa, eta ez daude horrelako asko euskaraz. Gainera, jende askok euskaraz irakurri duen liburu bakarrenetakoa da.

Arrakastaren gakoa hori izan da, baita aktore onak daudela ere, baina, batez ere, garrantzitsua izan da zelan kontatu dugun istorioa: simple, nire ustez, modu egokienean.

Bestalde, nik uste dut premia dagoela euskaraz barre egiteko.

Martxoan estreinatu genuen antzezlana; *Egunkaria* itxi zutela denbora gutxi zen eta hori nabaritu genuen. Antzerkia euskaraz ikusteko eta euskaraz barre egiteko premia handia dago, eta ez naiz batere harritzen.

**Dena dela, geure buruari barre egiten badakigu?**

Ez, nik uste dut ez dakigula, ez guk eta ez inork. Antzezlana horretan hori ikusten dugu. Geure buruaz barre egiteko modu egoki baten kontatuta dago istorioa eta, nire ustez, mezu hori ere badu antzezlana, geure buruaz barre egiten ikasi behar dugula, alegia.

**Zein da zuen hurrengo erronka?**

Zazpi hilabeteotan 70 emanaldi egin ditugu dagoeneko, eta datorren urte osoan ere antzezlana horrekin segituko dugu. Beste lan bat prestatzeari ere ekingo diogu, baina, batere presa barik. **Zer esango zenieke antzuolarreri zapatuan frontoira joan daitezen?**

Ederto pasatuko dutela. Ordu eta laurdenez euskaraz barrez lehertzea merezi duela.



GOIENKARIA

## LABUR

### Puntu Berde Mugikorra etorriko da hilaren 31n

Datorren asteko egubakoitzean, urriak 31, azokan egongo da Puntu Berde Mugikorra, 09:00etatik 13:00etara.

Erabilitako landare olioak, pilak, erradiografiak, etxetresna txikiak, poltsikoko telefonoak, bateriak, termometroak eta beste hainbat hondakin arrisksu jasotzen ditu Debagoieneko Mankomunitateak ekimen horren bitartez. Bi hilabete behin, azkeneko egubakoitzetan etorriko da Antzuolara Puntu Berde Mugikorra.

### Elvira Kortajarena PSE-EEko zinegotziari saria

Espainiako Hitz Moteltasunaren Fundazioak Zilarrezko Domina eman zion eguaztenezan Elvira Kortajarena Antzuolako PSE-EEko zinegotziari. Orain dela bi urte sortu zuten fundazio hori, eta ordutik hona Kortajarenak eman dien laguntza eta azaldu dien elkartasuna eskertu nahi izan diote sari horrekin. Besteak beste, hitz moteltasunaren prebentziorako eta tratamendurako programak bultzatu ditu Kortajarenak. Gipuzkoako Diputazioako Ongizate Sailean jardun du Elvira Kortajarenak azkeneko urteotan, eta kargu horretan egindako lana, hain zuzen, goraipatu du Hitz Moteltasunaren Fundazioak.



Elvira Kortajarena.

## Herritarren artelan txikiak

Aurreko asteburu osoan ikusgai egon ziren eskulan ikastaroan ibilitakoen artelan txikiak. Olanan etxean jarri zuten erakusketa, eta denetarik lanak ikusi ahal izan genituen: harizko lanak, margolanak, margotutako ontziak, dekorazioko hainbat eskulan...

Urte osoan eskulan ikastaroan ikasitakoak eta egindakoak herritar guztien aurrean erakutsi zituzten, beraz, ikasleek. Aurten ere jende ugari dabil ikastarorietan. /A.I.



Diario de Navarra



Por los héroes de Valdejunquera

Con el siglo XX y la Reconquista como fondo, en Guesálaz se erigió la leyenda en la que los vascos recuperan dos banderas robadas al rey Sancho Garcés I. en 1034.



DAZ de pie del monumento a Sancho Garcés I. en Guesálaz, en la localidad de Valdejunquera. A la izquierda, el alcalde de Guesálaz, Juan Carlos López de Letona. A la derecha, el alcalde de Valdejunquera, Juan Carlos López de Letona. En el centro, el alcalde de Valdejunquera, Juan Carlos López de Letona.

DIARIO 2



Antonio Skarmata, ganador del Premio, habla de su libro.

Los especialistas explican el éxito de Billarria.



La cantante Iva Mendos y la obra 'Romero x Juliet' abren hoy el festival Expresso.

Chimeneas, estufas, fogones...

Antzuolarrak, 'Diario de Navarra'-n

Aurreko astean Valdejunquera ibarreko Muez herrian egon ziren Antzuolako erretiratuak, eta hango alkateak, abadeek eta erretiratuek egin zieten harrera.

Ikusmin handia eragin zuen antzuolarren bisitak. Hurrengo egunean Diario de Navarra egunkariko atzeko orriari erreportajea egin zuten, eta Valdejunquerako batailaren nondik norakoak azaldu zituzten, bataila hartan antzuolarrek eman-dako laguntza aipatuta./A.I.

UDAL LIBURUTEGIA

Ipuin kontalariak egongo dira zapatuan

Bihar arratsaldean, zapatua, umeendako ipuin kontaketa saioa egongo da, Udal Liburutegiari antolatuta. Oihulari Clown taldeko kideek jardungo dute ipuinak kontatzen.

18:30 aldera, 6 eta 12 urte bitartekoendako saioa egongo dute, hori ere liburutegian.

ANTZERKIA ETA IPUIN KONTAKETAK Oihulari Clown taldeak clown teknikan oinarritutako antzerkia egiten du, batez ere, baina ipuin kontalariak ere badira. Bihar Txefo eta Bea ipuin kontalariak jardungo dute herriko umeei ipuinak kontatzen.



Bea eta Txefo ipuin kontalariak izango ditugu liburutegian.

LABUR

Erretiratuendako hitzaldia egongo dute eguenean

Datorren eguenean, urriak 30, erretiratuendako hitzaldia egongo dute, 17:00etan, Olan etxeako aretoan. Familia eta belaunaldi arteko harremanak izenburupean egongo dute hitzaldi hori, Hirugarren Adinekoen Institutu Komunitariokoek (ICTE).

Nafarroa Oinez-en alde dirua batuko du Idolaz-ek

Irunberriko Arangoiti ikastolaren alde dirua batuko dute Idolaz euskara elkarteak bihar, zapatua. Udal pilotalekuan egongo den antzerki emanaldiaren sarrerari mahaia jarriko dute Idolaz-ekoek.

Gogoratu ezazue aurreko domekan egin zutela Nafarroa Oinez Irunberri, baina eguraldi txarraren eraginez, ekitaldi gehienak bertan behera laga behar izan zituzten. Irunberrikoek helburua da ikastola bera, eraikina, eraikitzeko dirua ateratzea.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA Urriak 25 12:00: Antzuola-Urki (Neskak) 16:30: Antzuola-Legazpi (Erregion.)

PILOTA Urriak 24 (Gipuzkoako Txapelketa) 20:30: Olalde-Hernani (eskuz nagusiak) Ondoren: Olalde-Oiangu (paletaz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA Eibartarrak 0 Antzuola 4 (2. erreg.) Antzuola 0 Urki 4 (Kadeteak) Almen 7 Antzuola 1 (Neskak)

PILOTA Gipuzkoako Txapelketa Urrieta-Olalde (paletaz nag.)... 17-35

KIROLA

Arrolak irteera ugari ditu hilabeteotan

Orain dela bi aste egin zuten azkeneko irteera Arrola Mendi Elkartekoek, eta sekulako arrakasta izan zuen. Beratik Doneztebera mendiko bizikletaz joateko antolatuta zuten irteera hori, eta 70 bat lagunek hartu zuten parte. Batzuek bizikletaz eta beste batzuek oinez egin zuten ibilaldia Nafarroa aldean. Bi autobus eta furgoneta bat eraman behar izan zituzten antolatzaileek. Urteko balantze positiboa egin dute Arrolakoek, eta pozik daude jendearen erantzunarekin.

Datozen hilabeteotan ere hainbat irteera egingo dituzte: hala, azaroaren 9an egingo dute lehenengo irteera; Izarraitz aldeko mendietara joango dira, Erlotik Xoxotera, hain zuzen ere. Hurrengoa azaroaren 23an egingo dute, Mixotik San Migelera, hain zuzen ere. Abenduan beste bi irteera egingo dituzte: hala, hilaren 14an, Kanpanzartik Udaltxera joango dira, eta 31n, ohi bezala, Aizkorriara joango dira, urtea ondo bukatzeko.



Arrolako mendizaleak, Pagape iturrian.

Advertisement for zabalo, featuring Jose Luis Zabalo and contact information for Antzuola.

Advertisement for LARREA TABERNA, located in Kalebarren 17, Antzuola.

Advertisement for Juan Cruz, featuring wedding photography and contact information for Argazkiak and Bitxitegia.

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko urriaren 24a / 159. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Irakaslearen azalpenak entzun ostean baratzen antolaketa nola egin pentsatzen jardun zuten ikasleek ortuan bertan.

## Eskola umeei baratzean jardungo dute lanean

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Gaztetxe ondoan lursail bat egokitu dute eta bertan Herri Eskolako umeei ortuko lanetan jardungo dute aurki. Horrela, ortuko lanaren bidez, ingurumen hezkuntza landuko dute ikasleek, baita eguneroko bizitzarekin lotutako beste gai batzuk ere.**

Joan den astean eskolako hainbat guraso eta ikasleek belar txarrak kentzen jardun ostean, gaztetxe ondoan dagoen lursail bat egokitu eta umeei baratze lanetan jardungo dute ikasturtean.

Lur zati hori Udalarena da eta baimena eman die irakasleei Ingurune ikasgairako erabiltzeko. Hala ere, Udalak inoiz ortua dagoen lur zatia behar izango balu, eskolako arduradunei hila-bete lehenago jakinaraziko liekete, horiek libre utz dezaten.

Herritar batek ortuan makina pasatu eta prest dagoenean ikasleek hartuko dute laneko txanda.

Lehenengo, landatuko dituzten gauzen arabera plano bat prestatuko dute, eta lur arloa bost

zatitan banatu. Izan ere, bost dira sartuko diren produktuak: letxugak, tipulak, berakatzak, azalreak eta beste hazi batzuk. Hone-la, barazkiak eta haziak nola ezberdin hazten diren ikusi ahal izango dute ikasleek.

Negua gainean dela kontuan hartuta egin dute aukeraketa; hala ere, eguraldiak asko baldintzatuko du eskolakoek jasoko duten uzta.

Behin plana prestatu eta landaketa eginda, astean talde bat arduratuko da baratza zaintzeko lanetaz.

### HELBURUAK

Ortuko lanaren bidez ingurumen hezkuntza lantzea da helburuetariko bat. Izan ere, askotariko jaiak jorrazteko aukera emango

diote ikasleei: kontsumoa, elikadura, zaborren birziklapena, osasuna... Eta beste pertsona, bizi-modu eta planeta batzuekiko errespetua izaten eta zuzentasunez jokatzeko irakatsiko diete.

Horretarako, kontsumo erduaren, osasunaren eta ingurumenaren artean dagoen elkar eragina ikusi ahal izango dute umeei hezkuntza esparruan eta bertatik kanpo: baratzean, hain zuzen ere.

Helburu orokorrak horiek badira ere, bi multzotan banatu dituzte asmoak ikasleentzako arabera. Haur Hezkuntzakoek mugimendu, sentsazio eta adierazpen ahalmenak ezagutu eta erabiltzea izango dute xede. Lehen Hezkuntzako ikasleek, berriz, natura eta gizarte ingurune gertarako ulertzea. Bestalde, bi mailotan ikasleak euren gorputza ezagutzen eta estimatzen saiatuko dira, ongizatea, osasuna eta garbitasuna aintzat hartuta.

Dagoeneko ikasle batzuk izan dira ortuan, eta irakaslearen azalpenak entzun ondoren, eurek barazki bakoitza eta lore haziak non landatuko lituzketen zehaztuz plano bana prestatu dute.

*Aste bakoitzean gela bateko umeei arduratuko dira baratza zaintzeko lanez*

## LABUR

### Herriko kale, baserri eta etxeetako arratoiak akabatzeko kanpaina abian da

Aurten ere Udala arratoiak akabatzeko kanpaina egiten ari da herrian. Hori dela eta, orain dela 15 egun herriko hainbat lekutan arratoiak aurkako botika ipini zuten, estolda eta zulo inguruetan batez ere, eta astean behin gainbegiratu egiten dituzte leku horiek, arratoiak botika jan duten ikusteko. Herritarrei jakinarazi nahi die norbaitek arratoiendako botika etxean edo baserriaren jarri nahi izanez gero, udaletxean izango duela eskuragarri.

### Nafarroa Oinezen alde dirulaguntza emateko dei egin die Udalak elgetarrei

Joan zen domekan Nafarroa Oinez jaia bertan behera geratu zen eguraldi txarragatik. Hori dela eta, Irunberriko Arangoiti ikastolako guztion laguntza behar du bere proiektua, eskola berria, aurrera atera ahal izateko. Horretarako, Udalak elgetarrei dei egin die dirulaguntza emateko. Interesatuak honako banketxe eta aurrezki kutxetan egin ditzakete ekarpenak: Nafarroako Baserriaren Kutxa, Nafarroako Kutxa, Euskadiko Kutxa eta SCHn.

### Ska eta rock kontzertua izango da gaur, barikua, gaztetxean, gaueko 23:00etan

Gaur, urriak 24, barikua, kontzertua izango da gaueko 23:00etan gaztetxean. Paparazzi eta Baneteuanba taldeek jardungo dute. Paparazzi talde katalanak ska doinuak eskainiko ditu batez ere, baina soul, funky eta rap estiloak ere ukituko ditu. Baneteuanba, berriz, Ondarroako rock talde bat da. Kontzerturako sarrerak bi euro balio du. Gaztetxetik jakinarazi digutenez, hurrengo kontzertua Gaztañerre Egunean izango da, azaroaren 7an.

### Izendatu dituzte Mankomunitateko batzordeetarako Udaleko ordezkariak

Mankomunitateko informazio batzordeak osatu nahian udal bakoitzeko ordezkariak izendatzeko egindako eskariari erantzunez, Elgetako udalbatzarrak aho batez erabaki du honako ordezkariak aukeratzeko: Ogasun eta Pertsonal batzordeetarako Oxel Erostarbe; Lurralde Antolamendurako eta Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziarako Joseba Muxika; Ingurumenerako Izaskun Larrea; eta bestelako zerbitzuetarako Iñaki Ugarteburu. Ordezkoak hauek dira: Iban Retolaza Ogasun eta Pertsonalerako, Izaskun Larrea bestelako zerbitzuetarako eta Patxi Basauri gainerakoetarako.




PANA DE ROKUA  
JATETXEA

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

KIROLA



Patxi (argazkian) eta Sergio Bouzas arduratuko dira borroka arteen ikastaroaz eta Asun Martinez tai-chia irakasteaz.

## Tai-chia eta borroka arteak ikasteko aukera kiroldegian

Udaleko Kirol Zerbitzuak tai-chi eta borroka arte ikastaroak ipiniko ditu abian aurki. Herritarrek oraindik izena emateko aukera dute. Bestalde, eskola kiroleko taldeak hasi dira lanean; guztira hiru taldek dihardute.

Bi ikastaro abian jarriko dituztela jakinarazi digute Udaleko Kirol Zerbitzutik.

Batetik, azaroaren 3an hasiko da tai-chi ikastaroa Asun Martinez irakasle eskoriatzarraren eskutik. Eskolak martitzenetan eta eguenean izango dira, iluntzeko 20:00etatik 21:00etara, kiroldegiko gimnasioan.

Dagoeneko hamar lagunek eman dute izena, baina norbait interesaturik balego, oraindik izena emateko aukera duela esan digute. Ikastaroko partaide bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu hilabeteko.

Bestalde, borroka arteak ikasi eta, bide batez, sasoi hobetzeko zerbitzua ere egun berean ipiniko dute abian. Patxi eta Sergio Bouzas arduratuko dira ikastaroaz eta bi talde izango dira: 12 eta 16 urte artekoek astelehentan 18:30etik 20:00etara jardungo dute eta 16 urtetik gorakoek, berriz, eguaztenetan ordu berean. Eskolak kiroldegiko gimnasioan emango dituzte.

Izena emateko azken eguna urriaren 30a da, eta interesatuek Udaleko Kirol Sailera jo beharko dute. Hilabetean 12 euro ordainduko dituzte kirolariek.

**Ikastaroak kiroldegiko gimnasioan hasiko dira azaroaren 3an abiatuta**

### ESKOLA KIROLA


Eskola kirol kontseiluak 6 eta 12 urte bitarteko eskolarrei egin zien kirol eskaintza. Hiru talde osatu dituzte: aurre-benjaminena, benjaminena eta alebinena.

Aurrebenjaminen taldean 6 eta 7 urteko hamar ikasle daude. Joan den astean hasi zituzten saioak eta maiatzaren 31ra bitartean, eguenero, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara kiroldegiko gimnasioan jardungo dute.

Benjaminen taldean 8 eta 10 urte bitarteko hamar ikasle daude. Horiek ere joan den astean hasi ziren; saioak barikuetan izango dituzte 18:30etik 19:30era.

Alebinen taldea da nagusia adinez eta ikasle kopuruari dagokionez. 14 ikasle dihardute barikuetan 17:30etik 18:30era.

Benjaminen eta alebinen zapa-tuetan partiduak jokatzen dituzte Bergaran. Txikienek saskibaloiarekin eta besteek futbolarekin hasi dute eskola kiroleko aurtengo denboraldia.



## Kutxaren bulegoaren toki aldaketa

Oraindik noiz eta nora zehaztu ez badute ere, Kutxak plazan duen bulegoa tokiz aldatuko dute obrak egiteko. Izan ere, jadanik 30 urte inguru dira bulegoa ireki zutela eta berrikuntzak beharrezkoak dira. Obretan ari diren bitartean Kutxaren behin behineko kokapena baliteke San Roke kalean, estankoa zegoen lekuan izatea, baina oraindik negoziaketetan ari dira./I.a.

## LABUR

### Beteranoen pilota txapelketako hurrengo partiduak domekan jokatuko dira

Beteranoen lau t'erdiko pilota txapelketa abian da eta lehenengo jardunaldian faboritoek irabazi zituzten norgehiagoka guztiak. Hain zuzen ere, Arantzetarrak, Irazabal/Eizagirre, Larrea/Arkarazo eta Arantzabal/Telleria bikoteak nagusitu ziren. Txapelketako hurrengo partiduak barikuan jokatzeak baziren ere, Gipuzkoako Txapelketa dela-eta domekara aldatu dituzte.

### Udalak 'Berria' egunkaria jasotzeko urtebeteko harpidetza egitea erabaki du

Kultura batzordetik jakinarazi digutenez, Udalak *Berria* egunkaria jasotzeko urtebeteko harpidetza egin du. Liburutegia arratsaldera arte itxita dagoenez eta udaletxetik pasatzen den jendeak bertan geldialdia egiten ez duenez, egunkaria jasotzeko leku egokiena medikuaren kontsulta dela erabaki dute.

### Odol ateratzea egingo dute datorren martitzen arratsaldean udaletxean

Datorren martitzenean, urriaren 28an, odola emateko eguna izango da Elgetan. Odol ateratzea arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egingo dute udaletxean. Odol Emaileen Elkarteak elgetar guztiei dei egiten die odola ematera hurbil daitezen. Izan ere, euren esanetan, "odola ematea beste bati laguntzea da".

## SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

## Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



### RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

## ERRETRATUZAHARRA

BERGARA


## Turismo-hegazkina lurreratu zen Lapatzan

**T**urismo-hegazkin bat Lapatza baserrian lurreratu zeneko argazkia duzue hau. Jesus Garitanoren arabera, 1968ko maiatzaren 11n, iluntze aldera, pilotu katalan batek gidatzen zuen turismo-hegazkina lurreratu beharrean izan zen, behe-lainoa zela-eta. Agorrosinen eta Labegaraieta aldean hainbat saiaketa egin eta gero, Lapatzako sorroan lurreratu zen. Zuri atera ei zen pilotua turismo-hegazkinetik, susto galanta hartu zuen-eta.

Guardia Zibilak gertatutakoaren atestaturia egin ondoren, pilotua ez zen ausartzen Lapatzatik aireratzeko. Hegoak kendu eta turismo-hegazkina gurdian eraman ondoren, inguruko aireportu batetik aireratu zen.

Argazkian: Santos Alustiza *La Voz* egunkariko kazetaria, Maria Jesus Alustiza, ezezaguna eta Lapatzako Jesus Garitano, hegazkin-turismoaren ondoan.

Argazkia: Jesus Garitano



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

## Gorlako kantina zaharra

**A**skok eta askok gogoan izango dute Gorlako kantina zaharra. Txomin Lete eta Felisa Txintxurreta senar-emazteek zabaldu zuten, 1971n, eta Gorlara joaten zirenen topaleku izan zen urtetan. 2001eko ekainean, baina, itxi egin zuten Gorlako kantina eta handik gutxira bota egin zuten. Kantina berria, bestalde, Iturriberriko atsedenekuan zabaldu zuen Bergarako Udalak.



≈ 1994 Gorlako kantina zaharraren irudi bat, elurra egin zueneko urte batekoa. Hogeita hamar urtez izan zen zabalik kantina.



2003 Kantina zaharraren eraikina 2001ean bota zuten, eta haren lekuan mahai batzuk baino ez dira gertatzen. Handik gertu zabaldu zuten kantina berria.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA


Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

# ARREGI AROZTEGIA



PVCzko  
LEIHOAK



Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK



ATEAK ETA  
LEIHOAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

## SARRERA DOAN

### Astebururako plana zabal-zabalik



Eguenetan,  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
Amagoia Lasagabaster



**Ikusiko  
duzu!**





Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

## ADATS

- Herri lagunak 4  
BERGARA  
943 76 49 51
- Europako azken tendentziak
  - Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
  - Solarium bertikala



- Boni Laskurain 2  
BERGARA  
943 76 56 05
- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
  - Kerastase tratamend.
  - Makillaje bereziak
  - Abangoardia lanak

## disdira

- Masterreka 7  
BERGARA  
943 76 00 55
- Luzatzeak
  - Azken joerak
  - Ezkontzak
  - Metxak eta moldeatuak

## IDOIA

- Espoloia 4  
BERGARA  
943 76 97 75
- Ile luzatzeak
  - Aurpegiko larruazal garbitzea
  - Solariuma

## ileak

- Ozaeta 3  
BERGARA  
943 76 22 54
- Ilerako tratamenduak
  - Teknika berriak
  - Era guztietako orraskerak

## Jean Louis David

- Ibargarai 43  
BERGARA  
943 76 22 48
- Teknika aurreratuenak
  - Deskontu txartelak
  - Solariumerako bonoa
  - Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

## ORRASKI

- San Pedro 6  
BERGARA  
943 76 47 01
- Ile apaindegi mistoa
  - Kolore bereziak
  - Ezkontzak
  - Solariuma

## Ostadar

- Ibargarai 42  
BERGARA  
943 76 72 76
- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
  - Depilazioa eta makillajea
  - Solariuma dutxarekin

## Pepelu

- Zurradero 2  
BERGARA  
943 76 43 07
- Gizonezkoendako
  - Labanaz moztea
  - Azken tendentziak
  - Bizartegia
  - Kolorea

## SANCHEZ

- Fraiskozuri 4  
BERGARA  
943 76 23 70
- Gizonezkoendako
  - Labanaz moztea
  - Klasikoa/modernoak
  - Bizartegia
  - Kolorea